

UNESCOko zuzendari nagusi Audrey Azoulay andrearen mezua, Elkarrizketarako eta garapenerako kultura-aniztasunaren mundu egunean

2023ko maiatzaren 21a

“Trukeen, berrikuntzaren eta sormenaren iturria da kultura-aniztasuna; berau, bizirik dauden organismoentzat biodibertsitatea den bezain beharrezkoa da gizakiarentzat”.

Hori da nazioarteko komunitateak duela 22 urte UNESCOren Kultura-aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsalean adierazi zuen uste osoa. Uste hori Kultura-adierazpenen Aniztasuna Babesteari eta Sustatzeari buruzko UNESCOren Konbentzioan (2005) eta Biodibertsitatearen Nazioarteko Egunaren bezperan sinbolikoki ospatzen den mundu egun honen ospakizunean ere islatzen da.

Gaur egun funtsezkoa da gure konpromisoa berrestea, kultura-adierazpenen aniztasuna hondatzeko arriskua oso erreala baita.

Lehenik eta behin, arrisku existentziala dago: klima-aldaketaren ondorioek populazioei eragiten dietenean, giza kulturaren sektore oso batzuk betiko desagertzeko arriskuan daude.

Bestalde, kulturaren digitalizazioa aldi berean etorkizun handikoa eta paradoxikoa da zentzu askotan: kulturarako sarbidea handitu eta sormen-bulkadak indartu baditzaiteke ere (COVID-19aren pandemian ikusi genuen bezala), desberdintasunak ere areagotzen ditu eta kultura-edukiak uniforme bihurtzeko bektore bat izan daiteke.

Gainera, kultura-aniztasuna bereziki ahula da gatazka garaian. Sarritan, ondarearen aurka egiten da —nazioarteko zuzenbidearen urraketa da hori—, herrien nortasun mistoak eta pluralak gorpuzten dituelako. Gero eta maizago, kultura-adierazpenen aniztasuna bermatzen duten artistak eta kultura-arloko profesionalak helburu bihurtzen dira gatazka-egoeretan.

UNESCO gai horien inguruan mobilizatzen da, eta kultura-aniztasunaren errespetuari buruzko printzipio gidariak eta nazioarteko arauak ezartzen ditu, alde askotako elkarrizketa babestuz, diziplina anitzeko bere esperientzia emanez, kultura-ondasunak nahita suntsitzearen aurka zein horien legez kanpoko trafikoaren aurka borrokatzeko.

Halaber, larrialdi-egoeretan artistak babesten eta sormena defendatzen saiatzen gara. Adibidez, Afrikako 21 herrialdetan, Artisten eta Kulturako Profesionalen aldeko UNESCO-Aschberg Programak gobernuei eta gizarte zibilari laguntzen die artisten izaera eta askatasun artistikoak indartzen eta babesten.

UNESCOren MONDIACULT 2022 Mundu Konferentziak, Kultura Politikei eta Garapen Jasangarriari buruzkoak, orain aplikatu beharreko norabidea ezarri zuen: kultura, bere aniztasun osoan, munduko ondasun publikoa da, eta guztion ardura da. Konpromiso hori berretsi dugu mundu egun honetan.